





# Euskalduntze-alfabetatzearen etorkizunerako oinarriak eraginkortasunari eta kalitatea hobetzeari begira



**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2003

Euskalduntze-alfabetatzearen etorkizunerako oinarriak, eraginkortasunari eta kalitatea hobetzeari begira. – 1. argit. – Vitoria-Gasteiz : Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2003

or. ; cm

Badu gainera atari eta orrialdekatze propioa behekoz gora gaztelaniaz: "Bases para una mayor eficacia y mejora de la calidad de la euskaldunización y alfabetización de adultos"

ISBN 84-457-2071-6

1. Euskara-Normalizazioa. I. Euskadi. Kultura Saila. II. Izenburua (gaztelania).  
809.169-06

**Argitaraldia:** 1.a, 2003ko abendua

---

**Ale kopurua:** 1.000

---

**©:** Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Kultura Saila

---

**Argitaratzailea:** Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ

---

**Internet:** [www.euskadi.net](http://www.euskadi.net)

---

**Fotokonposizioa:** mcccgraphics (planta Elkar)

---

**Inprimaketa:** mcccgraphics (planta Elkar)

---

**ISBN:** 84-457-2071-6

---

**Lege gordailua:** BI - 3189 - 03

## Aurkezpena



**E**uskararen Aholku Batzordea azaroaren 24ko 10/1982 Legean aurreikusitako harreman-  
-organoa da, hizkuntza normalkuntzan diharduten erakunde publiko nahiz pribatuen  
ahaleginak eta ekintzak aztertzeko, bideratzeko eta koordinatzeko sortua.

Euskararen Aholku Batzordearen egitekoak dira, besteak beste, Euskal Autonomia Erkidegoko  
hizkuntza-normalkuntzari buruzko gaiak aztertzea eta ikertzea eta euskararen erabilerari  
buruzko xedapenak ondo ezartzeko behar diren neurriak proposatzea Jaurlaritzari eta  
dagokien erakundeei.

EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEAREN ETORKIZUNERAKO OINARRIAK, ERAGINKORTASUNARI ETA KALITATEA HOBE-  
TZEARI BEGIRA izeneko argitalpena, Euskararen Geroratzearen Jarraipenerako Batzorde-atalak  
2003. urtean egindako azterketaren eta hausnarketaren emaitza da.

Euskararen Aholku Batzordearen aginduz osatutako oinarrizko proposamena 2003ko maia-  
tzaren 5eko Euskararen Geroratzearen Jarraipenerako Batzorde-atalaren bilkuran aurkeztu  
zen. Ondoren, lau hilabetez landu zen proposamena. Kideen ekarpenak jaso eta behin-  
-behineko txostena 2003ko irailaren 17an onartu zuen Batzorde-atalak.

Ondoren, 2003ko irailaren 25ean Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritzan izandako Euskararen  
Aholku Batzordearen Osoko Bilkuran aurkeztu ondoren, onartzea eta zabaltzea erabaki zen.

Hona hemen, beraz, Euskararen Aholku Batzordeak euskal hiritar guztiei, eta, bereziki,  
euskalduntze-alfabetatzearen esparruan diharduten eragile publiko zein pribatuei zuzendutako  
aholku-proposamenak, lagungarri izango direlakoan.

**Euskararen Aholku Batzordea**  
Vitoria-Gasteiz, 2003ko abendua





## Aurkibidea



Sarrera .....	13
Euskalduntze-alfabetatzearen inguruan zenbait datu .....	17
• Euskaltegietako eta autoikaskuntza zentroetako ikasleen bilakaera .....	19
- <i>Euskal Autonomia Erkidegoko euskaltegietako ikasleak</i> .....	19
- <i>Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako autoikaskuntza-zentroetako ikasleak (Bai&amp;By)</i> .....	19
- <i>Nafarroako Foru Komunitateko euskaltegietako ikasleak</i> .....	20
• Ikasleen hasiera maila .....	21
• Ereduen bilakaera irakaskuntzan .....	22
• Ikasleen adina .....	23
• Euskaltegien jardueraren bilakaera .....	24
• Ikastaro-motak euskaltegietan .....	24
Euskalduntze-alfabetatzearen eraginkortasunaren adierazleak .....	27
• Ikasleen lorpen-maila .....	30
• Ikasleen bajak .....	32
• Ikasleen asistentzia .....	33
• Ikasleen birmatrikula .....	34
Ondorioak .....	37
• Euskalduntze-alfabetatzearen xedea .....	39
• Beherakadaren arrazoiak .....	39
• Euskalduntze-alfabetatzearen bideragarritasunerako irizpideak eta neurri-proposamenak ..	40
- <i>Ikasleen beharretara egokitutako irakaskuntza: xede-taldeak</i> .....	40
- <i>Ikas-prozesuaren eraginkortasuna bermatzeari begirako neurriak: trinkotasuna eta birmatrikula</i> .....	41
- <i>Aitortza-sistema egituratu</i> .....	42
- <i>Baliabideak eta azpiegiturak: baliabide ekonomikoak, teknologia berriak, materialak</i> .....	42
- <i>Euskalduntze-alfabetatzea erabilera sustatzeko osagaia</i> .....	43
- <i>Motibazioa eta sentsibilizazioa landu</i> .....	44



Sarrera



**E**uskararen berreskurapenean, euskal irakaskuntzarekin batera, helduen euskalduntze-alfabetatzea izan da ekinbiderik eta mugimendurik garrantzitsuena. Horrekin batera, esparru horretako eragile nagusi diren euskaltegiek, urtez urteko lan-jardunen bitartez, gizartearen oniritzia eta aitortza irabazi dute.

Euskalduntze-alfabetatzearen xedea da hizketarako gai diren euskaldunak ahalik eta eperik laburrenean lortzea (EBPN, 52. orrialdean, VI.3.1.b paragrafoan; HEOK, 11.ean). Baina, emaitzak ez dira nahi bezain asebetegarriak. Euskara Biziberritzeko Plan Nagusian bertan (40.ean, IV.4.11 paragrafoan) adierazi bezala:

Hizkuntza bat ikastea neketsua da [...]. Hasten diren askok ez dute ikasturtea amaitzen; hurrengo urtean gutxiagok jarraitzen; oso gutxik erdiesten dute euskara-maila egokia. Horietako askok, gainera, ikasteari utzitakoan, euskaraz bizitzeko dituzten aukeren urritasunagatik, galdu egiten dute ikasitakoa.

Ildo beretik, eta Euskara Biziberritzeko Plan Nagusian ere azaldu bezala (52. orrialdean, VI.3.1.b paragrafoan), hainbat eginkizun aurreikusten ziren, besteak beste:

Emaitzei buruzko gogoeta sakona egin. Kalitate-irizpideak finkatu eta adostu: adierazle egokiak aukeratu, bakoitzaren pisua erabaki, euskaltegien emaitzak aztertu eta onenak saritzeko mekanismoak antolatu [...].

Testuinguru horretan, bada, ondorengo lauki eta grafikoetan, IKEIk egindako lanaren ildotik, euskalduntze-alfabetatzearen zenbait datu labur azaldu nahi ditugu. Horiek eta hari bereko azterketa xeheagoak kontuan hartuz, aurrera begirako hainbat neurri hartu ahal izango ditugu, bereziki euskalduntzearen kalitatea hobetzeko, eta, ahalik eta hiztun-kopururik handiena lortzeko, eperik laburrenean.





**Euskalduntze-alfabetatzearen  
inguruan zenbait datu**




## Euskaltegietako eta autoikaskuntza zentroetako ikasleen bilakaera

*Euskal Autonomia Erkidegoko euskaltegietako ikasleak*

Gauza jakina da euskara ikasten ari diren helduen kopurua gutxitu egin dela azken bospasei urteetan. Horrekin bat, eskola-orduak ere behera etorri dira.

### 1. GRAFIKOA

EAEko ikasle-kopurua, guztira. Urteroko eboluzioa, 1989/90-2001/02.




*Iturria: HABE*

*Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako autoikaskuntza-zentroetako ikasleak (Bai&By)*

### 2. GRAFIKOA

Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako autoikaskuntza-zentroetako ikasleak (Bai&By).




*Iturria: Bai&By*

### Nafarroako Foru Komunitateko euskaltegietako ikasleak<sup>1</sup>

Ondoko grafiko eta tauletan ikus daitekeenez, 1997-98 artean ikasle-kopurua gorantz doa, bai euskaltegi publikoetan bai pribatuetan. Ikasturte horretatik aurrera, ostera, urtez urte ikasle-kopurua gainbehera doa etengabe.

#### 3. GRAFIKOA


##### Nafarroako Foru Komunitatea (euskaltegi publikoak).



*Iturria:* Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua

#### 4. GRAFIKOA

##### Nafarroako Foru Komunitatea (euskaltegi pribatuak).



*Iturria:* Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua


<sup>1</sup> Nafarroako datuak ikasturte hasierakoak dira, urrian matrikulatzen diren ikasleen gainekoak.

## Ikasleen hasiera maila

Maila altuan ikasketak hasten dituzten ikasleen ehunekoa handiagotu egin da urteetan zehar (bi muturrak kontuan hartuta). Alderantziz, maila baxuetan hasi diren ikasleen neurri erlatiboa txikiagotu egin da.

### 5. GRAFIKOA

Euskaltegietako ikasleen distribuzioa, hasiera-mailaren arabera EAEn. Urteroko eboluzioa, 1993/94-2001/02.




Iturria: HABE

Ikusitako datuei erantsi behar autoikaskuntza sistemakoak (Bai&By).

### 6. GRAFIKOA

Autoikaskuntza-zentroetako ikasleen distribuzioa, hasiera-mailaren arabera.




Iturria: Bai&By

Ikasleen artean, behe-mailetakoen pisu erlatiboa jaitsi egiten da 98-99 ikasturtea eta 2001-02 alderatzen baditugu. Bestalde, zazpigarren urratsetik gorako ikasleak %6,7 baziren 1998-99 ikasturtean, gaur egun %12,5 dira.

## Ereduen bilakaera irakaskuntzan

### 7. GRAFIKOA

EAEko ikasleak B eta D ereduetan.<sup>2</sup>




Iturria: IKEI. "Euskal Ekonomia Txostena", Euskadiko Kutxa. 1990-2001

B eta D ereduak gero eta pisu handiagoa dute EAEko irakaskuntzan.

### 8. GRAFIKOA

EAEko Batxilergoko ikasleak B eta D ereduetan (%) eta euskaltegietako 15-24 urteetako ikasleen ehunekoa, 1989-2001.



Iturria: HABE


Beraz, badirudi B eta D hezkuntza-ereduen gorakadak eragin zuzena izan duela ikasle gazteen euskalduntze-eskaeraren murrizketan. Jakin badakigu ere, maila ezberdinetako elebidunak ditugula D eta B ereduetao ikasleen artean, ingurunearen, jatorriaren..., lehen hizkuntzaren arabera.

<sup>2</sup> Lehen Hezkuntzan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Lanbide Heziketan eta Batxilergoan dauden ikasle guztiak.

## Ikasleen adina

### 9. GRAFIKOA


Ikasleen adin-proportzioaren bilakaera ikasturtez ikasturte.



Ikusten denez 25 urtetik gorakoen ehunekoa handituz doa. Aitzitik, 25 urtetik beherakoak gero eta gutxiago dira.

### 10. GRAFIKOA

Ikasle-kopuruen bilakaera, milaka, ikasturtez ikasturte adinaren arabera.



## Euskaltegien jardueraren bilakaera

Euskaltegi sare gehienetan jaitsiera nabarmena izan da, batez beste %19koa.

### 1. TAULA

Talde-orduak sareka (ordu kop., milaka/urteko).

Ikasturtea	Udal E.	Prib.	Fed. gabeak	Bertan	AEK	IKA	Barnet.	GUZTIRA
(1) 1993 /1994	321	709	55	263	299	58	34	1.030
1994/1995	289	757	57	265	330	68	36	1.046
1995/1996	287	806	67	269	368	68	34	1.093
1996/1997	275	793	62	247	379	74	31	1.068
1997/1998	258	760	67	234	356	75	27	1.018
1998/1999	247	728	63	236	327	72	30	975
1999/2000	248	739	60	240	335	77	27	986
2000/2001	234	682	53	235	290	74	29	915
(2) 2001/2002	221	614	49	217	250	72	26	835
<b>Eboluzioa -% - (2/1)</b>	<b>-31</b>	<b>-13</b>	<b>-12</b>	<b>-17</b>	<b>-16</b>	<b>-23</b>	<b>-24</b>	<b>-19</b>

Iturria: HABE

## Ikastaro-motak euskaltegietan

Ikastaro arruntenak astean 10 ordukoak dira, hain zuzen ere. Halere, gero eta pisu handiagoa hartzen dute trinkoak ez diren ikastaroek; astean 10 ordutik beherakoak %3,3tik %27,8ra pasa dira.

Badirudi, gizarte-ohituren aldaketa erakusten duela horrek: denboraren antolaketa, egunero-ko premiak, oporrak...

Edozein kasutan, joera hau ikusirik, adi egon beharrean gaude, ondoren azalduko diren taula eta grafikoaren arabera, ikas-prozesua gehiago moteltzeko arriskua baitago.



## 2. TAULA

Ikastaro-moten bilakaera ikasturteka.

Trinkotasuna / Ikasturtea	93/94	94/95	95/96	96/97	97/98	98/99	99/00	00/01	01/02
< 10 ordu astean	3,3	9,3	12,0	15,7	18,4	21,2	25,3	26,1	27,8
10-19 ordu astean	58,9	55,3	57,3	55,8	55,0	52,2	48,9	48,5	46,3
> 20 ordu astean	11,6	10,4	9,2	8,4	8,5	7,6	7,4	7,7	8,0
Udan trinkoak	14,0	14,4	11,0	11,0	9,9	10,5	9,7	9,2	9,3
Udan barnetegiak	6,6	6,2	6,8	5,6	5,3	5,3	4,9	4,7	4,6
Barnetegi aldiak	5,6	4,4	3,8	3,6	3,0	3,2	3,9	3,9	4,0
<b>GUZTIRA</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

*Iturria: HABE*



**Euskalduntze-alfabetatzearen  
eraginkortasunaren adierazleak**



**T**xosten honetan lau adierazle nagusi hartu dira kontuan euskalduntze-alfabetatzearen arrakasta neurtzeko.

Bestalde, hizkuntzaren ikas/irakaskuntzan ez da baztertu behar helburua hizkuntza erabiltzen jakitea dela eta hori dela lortu behar dena. Horrek datu osagarriak eskatuko lituzke, hau da, nolabait neurtzea ikasleak nola, noiz, norekin erabiltzen duen ikasitakoa.

Hor, beraz, lau adierazle horien definizioa lehendabizi. Ostean bakoitzari buruzko datuak datoz:

— **Lorpena:** bera da errendimenduaren aldagairik garbiena. Ikas-prozesuan ezarritako urratsak eta mailak gainditzeari dagokio. Urrats eta maila horiek zenbat eta denbora-epe laburragoan gainditu, arrakasta hainbat eta handiagoa izango da. Segidako tauletan, lorpena, ikasleek 100 eskola-ordutan, batez beste, lortu duten urrats proportzioari dagokio. Beraz, adibide gisa, 0,60 urrats lortu izanak adierazten du ikasleak, 100 eskola-ordutan, urrats baten %60 gainditu duela. Urratsa gainditzearen aitortza euskaltegi bakoitzak ematen du, ez da, hortaz, kanpo-ebaluazioaren bidez egiten. Lorpenaren barruan bada beste puntu bat: ikasleei kanpo-ebaluazioa egiten zaien kasuetan (EHEE/EGA azterketak) emaitzak ez direla espero bezain onak. Hor emaitzen kopuruek behera egiten dute.

— **Baja:** ikastaldia amaitu baino lehen, ikas-prozesua bertan behera uztea porrotaren seinalea da, helburuak lortzen ez diren heinean. Datu hau euskaltegietatik jasotakoa da.

— **Asistentzia:** eskoletara joatean huts egiteak edota berandu iristek ikaslearen atzerapena ekarri ohi dute baita talde osoaren dinamikan eragin kaltegarria ere.

Asistentzia, euskaltegietan neurtzen den bezala, euskaltegiak eskainitako orduen eta ikasleak hartutakoaren arteko koizientearen bidez islatzen da.


— **Birmatrikula:** halaber, euskalduntze-alfabetatzean eskaintzen den ikas-prozesua (1-12) amaitu gabe, ikasturte batean matrikula-aldi jakin bat amaitu eta, hurrengo ikasturtean, berriro ere, ez matrikulatzeak arrakasta ez izatea dakar berekin. Birmatrikula, ikasturte batean hasi eta hurrengo ikasturtean jarraitzen dutenen ehunekoaren arabera adierazten da.

## Ikasleen lorpen-maila

1993/94 - 2001/2002 ikasturteen artean, ikasten jardun duten helduen lorpenari dagokionez, emaitza orokorrak hauek ditugu: 101-103 urratsetan hasitakoek %25 iristen dira HEOKen 1. mailara edota maila horretatik gora. 104-106 urratsetan hasitakoek artean, berriz, %65,5ek lortzen du 1. maila edota goragokorik. 107-109 urratsetan hasitakoek artean, aldiz, %64,5ek lortzen du 2. maila edota goragokorik; 110-112 urrats-tartean hasitakoetatik ia %60k lortzen du 3. maila, eta, 201-202koen artean (alfabetatzeak) % 51,7k lortzen du 3. maila.


### 11. GRAFIKOA

Maila altuago bat gainditzen duten ikasleen ehunekoak.



## 12. GRAFIKOA

1993-1994 ikasturtetik 2001-2002 ikasturtera lortutako mailak (guztira: 180.028 ikasle).




Iturria: HABE

1993-1994 ikasturtetik 2001-2002 ikasturtera 180.028 ikasle heldu aritu dira euskara ikasten. Horietatik -zeinahi urratsetan hasi direla ere- %18,3k lehenengo maila gainditu du; %14,6k bigarrena, eta, %20k hirugarrena. Batere mailarik gainditu ez dutenak %47,1 dira. Batere mailarik gainditu ez izanak ez du, haatik, esan nahi ikasle ohi horiek batere euskararik ez dakitela zeren eta %47,1 hori hasierako 5 urratsetan banatzen baita.

## 13. GRAFIKOA

Ikasleen lorpenaren eboluzioa, lortutako urratsaren arabera. 93/94, 97/98 eta 01/02 ikasturteak.



Iturria: HABE

Ikasleek lortutako urratsek gora egiten duten neurrian urrats lorpen-indizeak ere hobera egiten du. Arrakasta gutxienekoak 101-103 urratsak dira.

Batez beste, ikasle bakoitzak 100 ikastordurekin 0,5 urrats egiten ditu. Beraz, asteen 10 ordu egiten dituztenek, batez beste, urtean 1,5 urrats egiten dituzte. Egon badira 3 urrats ere egiten dituztenak eta urrats bakarra ere bai. Honen arabera, zerotik hasitako ikasle batek 4 urte beharko lituzke 1. mailara iristeko, lehen esan bezala, asteen 10 orduz ikasiz.


Zaila dirudi, beraz, lehen maila osorik amaitzea. Gomendioa ahalik eta era trinkoenean edo, behintzat, etengabe jarraitzea izango litzateke.

## Ikasleen bajak

Ikastaldia bertan behera utzitakoen batez besteko tasa %15,8koa da, azken bederatzikasturteak kontuan hartuz gero.

### 14. GRAFIKOA

Ikasleen bajak (%). Urteroko eboluzioa, 1993/94-2001/02.



Iturria: HABE

Oro har, esan liteke urratsak zenbat eta beherago baja-kopurua hainbat eta handiagoa dela. Baja-kopururik altuenak, 101-103 urratsetan gertatzen dira. Eta kopururik txikiak urratsik altuenetan. Horrenbestez, arreta berezia eskatuko luke lehen mailak: mailaren nondik norakoa zehaztu, ezaugarriak antzeman, zailtasunak aztertu, bidea errazteko erak, aholkuak...

### 3. TAULA

Ikasleen bajak eta ehunekoa matrikula-kopuru guztiarekiko, hasiera-mailaka. 93-94, 97-98 eta 01-02 ikasturteak.

	93/94		97/98		01/02	
	Bajak	%	Bajak	%	Bajak	%
1-3 urratsa	3.970	18,1	2.995	18,5	1.829	18,6
4-6 urratsa	2.713	16,7	2.488	16,2	1.548	14,5
7-9 urratsa	1.496	15,5	1.799	15,3	1.506	14,6
10-12 urratsa	642	11,9	998	12,4	1.295	13,0
Alfabetatze	543	17,2	328	10,5	275	8,5

Iturria: HABE




## Ikasleen asistentzia

Azken zazpi ikasturteetan, ikasleen asistentzia-tasa, batez beste %79,6 da.

### 15. GRAFIKOA

Ikasleen asistentzia (%). Urteroko eboluzioa, 1993/94-2001/02.



Iturria: HABE

Asistentzia-indizek handienak 20 ordutik gorako ikastaldietan, udako trinkoetan, uda barnetegietan eta barnetegi-aldietan azaltzen dira.

### 4. TAULA

Ikasleen asistentziaren eboluzioa, kursoen trinkotasunaren arabera. 93/94, 97/98 eta 01/02 ikasturteak.


	93/94	97/98	01/02
< 10 ordu astean	67,7	77,2	76,3
10-19 ordu astean	64,6	77,1	74,5
> 20 ordu astean	79,5	88,4	88,0
Udan trinkoak	86,7	86,9	85,7
Uda barnetegiak	96,0	96,1	94,7
Barnetegialdiak	88,2	91,0	89,4
Batez bestekoa	69,2	79,7	78,0

Iturria: HABE

## Ikasleen birmatrikula

### 16. GRAFIKOA

Ikasleen birmatrikula (%) ikasle kopuru guztiarekiko. Urteroko eboluzioa, 1992/93-2000/01.



Iturria: HABE

Irudietan ikusi bezala (kontuan hartu behar da goi-urratsetan ari diren ikasleek, ikas-prozesuaren amaieran ari diren heinean, matrikula gehiago egin beharrik ez dutela), esan liteke, oro har, ikaslariaren erdiak, ikas-prozesua amaitu gabe, ez duela hurrengo ikasturtean matrikularik egingo. Honek, berarekin batera galera nabarmena dakar, ikas-prozesua sistematikoki eta urtero eten egiten baita.

Birmatrikula-kopururik handienak 104-106 eta 107-109 urrats-tarteetan gertatzen dira. Kontuan hartzeko da goi-urratsetan, ikas-prozesuaren amaiera hurbil dagoenez, birmatrikula-kopuruak berez izan behar duela urriagoa. Hainbat eta hainbat ikaslek ez dute berriro ere matrikularik egingo ikas-prozesua amaitua dutelako. 101-103 urratsetakoen artean erdiak ere ez du hurrengo urtean matrikularik egiten.

### 5. TAULA

Ikasleen birmatrikulak mailaka: kopurua eta ehunekoa ikasle-kopuru guztiarekiko. 92-93, 96-97 eta 00-01 ikasturteak.

Ikasturteak	92/93		96/97		00/01	
	Kopurua	% ikasle kopuru guztiarekiko	Kopurua	% ikasle kopuru guztiarekiko	Kopurua	% ikasle kopuru guztiarekiko
1-3 urratsa	6.764	42,80	5.978	44,00	4.273	45,00
4-6 urratsa	6.691	53,90	7.265	56,00	5.277	56,20
7-9 urratsa	3.430	54,80	4.755	56,08	4.494	56,50
10-12 urratsa	1.467	38,50	2.281	38,50	3.048	37,90
Alfabetatze	984	30,60	853	29,20	551	24,50

Iturria: HABE

Birmatrikula-kopururik handienak trinkotasun handieneko ikastaldietan gertatzen dira. Birmatrikula-kopururik txikiena 101-106 ordu-tartean gertatzen da. Beraz, ikas-prozesuan ari direnen joera nagusiak dira hurrengo ikasturtean berriro matrikularik ez egitea, eta, matrikula egiten dutenek trinkotasunik handieneko ikastaldietan egitea. Agian helburu zehatza izateak laguntzen du horretan. Ikasleak ongi jakin behar du nora iritsi behar duen edo zer lortu nahi duen, eta horri muga bat jarri behar zaio.

## 6. TAULA

**Ikasleen birmatrikulak kurtsoen trinkotasunaren arabera: kopurua eta ehunekoa ikasle-kopuru guztiarekiko. 96/97 eta 00/01 ikasturteak.**

	96/97		00/01	
	Kopurua	%	Kopurua	%
1-6	1.280	38,3	2.410	37,3
7-9	1.710	46,7	1.667	50,5
10-19	15.735	51,6	12.019	51,7
>20	1.319	49,8	1.016	53,4
Udan trinkoak	2.569	53,6	1.961	52,5
Uda barnetegiak	1.720	60,4	1.243	62,0
Barnetegi aldiak	308	40,2	252	41,6

*Iturria: HABE*



## Ondorioak



**T**xosten honen aurreko ataletan azaldutako egoeraren argitan, ondoren barneratu ditugu euskalduntze-alfabetatzearen bideragarritasunerako irizpideak eta neurri-proposamenak, hain zuzen, Euskararen Aholku Batzordearen iritziz datozen urteotan garatu beharko liratekeenak.

### **Euskalduntze-alfabetatzearen xedea**

Euskararen geroratzea edo ondorengoetaratzea ziurtatzeko tresnak dira eskola eta helduen euskalduntze-alfabetatzea. Hori horrela, euskararen berreskurapenean, euskal irakaskuntzarekin batera, helduen euskalduntze-alfabetatzea izan da ekinbiderik eta mugimendurik garrantzitsuena.

Horretan, ezinbesteko izan da esparru horretako eragile nagusi diren euskaltegiek egindako lana: langileen formakuntzan, ikasleentzako zerbitzu osagarriak eskaintzen, material eta egitasmo bereziak sortzen, besteak beste. Urtez urteko lan-jardun horren bidez, gizartearen oniritzia eta aitortza irabazi dute.

Hori horrela, helduen euskalduntze-alfabetatzea euskara ondorengoetaratzeko tresna den aldetik, horren xedea da hizketarako gai diren euskaldun gehien eta ahalik eta eperik laburrenean lortzea. Horrela izan dadin, aurrera begira, beharrezkoa da euskalduntze-alfabetatzeari oinarri sendoak eskaintzea, orain artekoarekiko behar diren moldaketak eginda.

### **Beherakadaren arrazoiak**

Azken bospasei ikasturteotako bilakaerari erreparatuz gero, ikus daiteke helduen euskalduntze-alfabetatzearen jarduera beherantz doala. Horren adierazlerik nabarmenena ikasle-kopuruaren etengabeko jaitsiera da.

Gainbehera gizarte-ohitura aldatetarekin lotua egon badaiteke ere, neurri batean behintzat, jaitsiera horren arrazoi izan daitezke, besteak beste:

- Euskalduntzen trinkoenak diren hezkuntza-ereduen gorantzako joera argia;
- Langabezia-tasaren jaitsiera;
- Euskaltegietako ikasleen batez besteko adinaren igoera nabarmena;
- Ikas-prozesuaren luze-zabalera (tarteko helburuak jarri beharra);
- Ikasleen begietara euskara ikastea zailegia izatearen irudia....

Egoera honi irtenbideak bilatzearren, ondorengo atalean zehazten dira euskalduntze-alfabetatzearen etorkizuna bermatzeko hainbat irizpide eta neurri-proposamen.

### **Euskalduntze-alfabetatzearen bideragarritasunerako irizpideak eta neurri-proposamenak**

Ikasleen beharretara egokitutako irakaskuntza eta ikas-prozesuaren eraginkortasuna bermatzeari begira garatu beharreko neurriak dira hemen bildutakoak.

#### *Ikasleen beharretara egokitutako irakaskuntza: xede-taldeak*

Hizkuntza gizakion arteko komunikaziorako lanabesa da. Batzuen eta besteen egoerak eta, ondorioz, komunikazio-beharrak ez dira berdinak. Hori horrela dela aitortuta, helduen euskalduntze-alfabetatzeak modua egin behar du behar horiei egokitutako eskaintza egiteko. Hain zuzen ere, euskalduntze-alfabetatze jardunean, berau eraginkorra izango bada, oso kontuan izan beharko dira gizartean sor daitezkeen eskaera berriak.

- Bistakoa da azken aldi honetan euskalduntze-alfabetatzea norbanakoaren borondatezko jarduna izatekiko talde eta kolektibo jakinetara hedatzen ari dela. Talde horiek egoki identifikatzea izango da datozen urteotako erronketako bat. Eta identifikatu irizpide zenbaiten arabera:
  - Efektu biderkatzailea izango duten giza taldeak izango dute lehentasuna.
  - Beren zereginetarako behar bereziak dituzten taldeak.
  - Euskal gizartean integratzeko bidea urratu nahi dutenak...

Talde horietan sar daitezke Administrazioako langileak, Osakidetza eta Justiziakoak, ostalaritzakoak, gurasoak, finantza-alorrekoak, etorkinak, etab.

- Helduak Euskalduntzeko Oinarrizko Kurrikuluan (HEOK) ezarrita daude hainbat ikas-maila; bertan ezarritakoa baztertu gabe, esan bezala datozen urteotan arreta berezia jarri beharko da ikasleen beharretara egokitutako prestakuntza sustatzen.

Eskaintza hori egiteko orduan, ezinbestez, ziurtatu beharko da jarduera-esparru jakin batean euskararen erabilera areagotzeko ekintza-programa baten barnean kokatua dagoela, ikasleekin hitzartutako hasiera eta bukaera jakinak dituela eta prozesuaren amaieran hitzartutako ikas-helburuak neurtu eta ebaluatu egingo direla.

- Horrekin batera, eta talde horien beharrei erantzuteko, funtsezkoa izango da azpigiturak eta baliabideak sendotzea: ikasmaterial egokituak eta berezituak diseinatzea, irakasleak prestatzea eta xede-taldeak sustatzea.



## *Ikas-prozesuaren eraginkortasuna bermatzeari begirako neurriak: trinkotasuna eta birmatrikula*

Laburbilduz, datuek honako hau erakusten digute:

- Lorpenik handienak, oro har, goi-urratsetan gertatzen dira eta, era berean, trinkotasunik handieneko ikastaldietan.
- Baja-kopururik txikiak goi-urratsetan gertatzen dira eta asistentzia-indizerik altuena goi-urratsetan eta trinkotasunik handieneko ikastaldietan.
- Horrekin batera, trinkotasun txikiagoko ikastaroetarako matrikulak ugaltu egin dira nabarmen; baina, aitzitik, horietan gertatzen da birmatrikula-tasari baxua.
- Birmatrikula, sektore osoa kontuan hartuta, %50 ingurukoa da, beraz erdiek ez dute aurrera egiten bi ikasturteetan segidan.

Bistan da badagoela halako ebakera-puntua 3. urratsera arteko ibilbidea eta hortik gorakoa bereizten dituen, puntu horretatik gorakoan emaitzak hobek izaki.

Esan ere esan liteke, oro har, ikastaldia zenbat eta trinkoagoa izan aiseago eskuratzen direla kasuan kasuko helburuak. Hortaz:

- Ikastaldien gutxiengo trinkotasuna ziurtatu eta trinkotasunik handieneko ikastaldiak sustatu behar dira; izan ere, aztertutako datuen arabera, trinkotasun gutxiengo ikastaldietan jarduteak ikas-prozesua nabarmen luzatzen du, ikas-prozesua bertan behera uzteko arriskua handituz.

Jakina, baldintza egokietan eskaini beharko dira ikastarook, xede mugatuak eta helburu zehatzak egoki finkatuz. Ikastaro trinkoak indartu beharko dira, batez ere, "atalase mailara" iristeko edota helburu zehatzetarako (EGA lortzea, azterketa jakin bat prestatzea, arauetan eguneratzea, trebetasun jakin bat epe motzean lortzea...).

- Helburuak finkatu behar dira aurretiaz ikaslearekin, ikas-prozesua hasten duenerako argi izan dezan bai irakasleak zein denboratan eta zernolako ahaleginarekin lortuko duen hitzartutako ikas-helburua; beti ere, ikaslearen ingurunea kontuan izanda.
- Birmatrikula-indizea handitzera jo behar da, ikas-prozesua amaitu baino lehen ez uztea helburu izanik.
  - Hori horrela, saiakera berezia egin beharko genuke ikasleak ikus dezan era guztietako abantailak dituela euskara ikasten jarraitzeak, baita ekonomikoak ere. Funtsean, aurretiaz ikaslearekin hitzartutako ikas-mailetara iristea sustatu behar da, horretarako laguntza ekonomikoa eta aitortza bideratuz.

- Halaber, lotura bat bilatzen bada ikaslearekin gelatik kanpo, errazagoa izan liteke jarraipen hori ziurtatzea: euskara bere kabuz ikasten jarraitzeko materiala, material hori erabiltzeko aholkuak edo tutoretza, on-lineko laguntzak, harremana ez galdu ikasle izan direnekin, aholkuak eskaini, materiala non duten esan, helburu jakinetarako saio bereziak antolatu, hitzaldiak ikasleentzat...

### *Aitortza-sistema egituratu*

Helduen Euskalduntzerako Oinarritzko Kurrikuluan (HEOK)<sup>3</sup> lau gaitasun-maila zehazten dira. Maila horiek finkatzen dute hitzuna zer egiteko gaitasuna duen, lau trebetasunetan oinarrituta.

Euskaltegiatako irakasleekin elkarlanean eta kanpo-ebaluazioaz baliatuz, ikas-mailen aitortza jarri behar da martxan, maila sozialean, ekonomikoan eta ofizialean ikasleek behar duten erreko-nozimendua izan dezaten.

Ikasleak, bere ikas-prozesu osoan zehar ikas-helburu lorgarriak ikusi behar ditu, jakin behar du zer-nolako ahalegina egin behar duen ezarritako helmugetara iritsi ahal izateko eta ahalegin horren erreko-nozimendua jaso behar du, aitortza-agiriaren bidez.

Aitortza-sistemak kontrako eraginik sor ez dezan, helburuak ongi finkatu behar dira ikas-maila bakoitzean; euskaltegiatako jardunarekiko lotura bermatu behar da, helburuak betetzen dituzten ikasleak bideratzeko azterketetara.

Kanpo-ebaluazioari dagokionez, lehendik era horretara egindako azterketetan sortu diren arazoak aztertu eta konponbidean jarri beharko dira, ebaluatzeko tresna berriek ez ditzaten izan aurrekoen hutsegite berak.

Horri guztiari lotuta, ezinbestekoa da sektore ezberdinetan (Administrazio Orokorra, Hezkuntza, Osakidetza...) indarrean diren mailen eta aitortza-moduen arteko baliokidetzaren sistema eraginkorra egituratzea.

### *Baliabideak eta azpiegiturak: baliabide ekonomikoak, teknologia berriak, materialak*

- ***Diru-baliabideak:*** ahalik eta eperik laburrenean hizketarako gai diren euskaldunak lortzea izanik euskalduntze-alfabetatzearen xedea, onuradun nagusia ikaslea izatera jo beharko genuke. Euskalduntze-alfabetatzean azken zortzi urteotako helburu nagusia Euskal Autonomia Erkidegoko euskaltegien homologazioa izan da, euren arteko aldeak gutxiagotzeko.

Hori lortu ostean, aurrera begira finantzazio-bide berriak sustatu behar dira; gomendagarria ikusten da, beraz, euskalduntze-alfabetatzearen xede nagusia lortzeari

<sup>3</sup> 2000ko urtarrilaren 24ko Agindua. 2000ko otsailaren 8ko EHAA, 26. zk.a.

begira, ikaslearen emaitzetan oinarritutako dirulaguntzei gero eta pisu gehiago ematea.

- **Teknologia berriak** tresna lagungarriak ikas-irakaskuntzaren malgutasuna ziurtatzeko: hizkuntzaren ikas/irakasteko molde berriak garatu beharko dira, egoera eta premia berriei aurre egiteko. Teknologia berriek zeregin garrantzitsua bete dezakete arlo honetan, betiere ikastaroen eraginkortasuna eta lortu behar den maila bermatuz. Euskaltegiek beren jarduera-esparru lokala gaindituz, on-line zerbitzua eskain dezakete, talde birtualak sortu, edota xede-talde berezientzat programa bereziak garatu, aurrez aurreko ikas/irakaskuntza osatuz. Bestalde, ohiko bideak erabiliz euskara ikasteko zailtasuna dutenentzat edota ibilitako ikasleek dakitena ez ahazteko edo ikasi dutena sendotzeko aukera egokia da teknologia berrien bidea, horretarako euskaltegiek tutoretza zerbitzua eskain dezaketela.
- **Materialak osatu:** orain arte garatutako materialez gain, beharrezkoa da xede-talde eta behar berezietarako ikas-material egokituak egiten jarraitzea eta lan-lerro hori indartzea.

### *Euskalduntze-alfabetatzea erabilera sustatzeko osagaia*

Euskal Herriko II. Inkesta Soziolinguistikoan jasotakoaren arabera, bi dira euskararen erabileran eragina duten faktore nagusiak:

- bata, sozioestruturala, hau da, harreman-sareko euskaldunen dentsitatea, esparru soziolinguistikoarekin oso zerikusi handia duena;
- bestea, psikolinguistikoa, hau da, hizkuntza-gaitasun erlatiboa, edo bestela esanda, euskaraz eta gaztelaniaz moldatzeko erraztasun handiagoa edo txikiagoa izatea (lehen hizkuntzarekin zerikusi handia duena).

Beste faktore batzuk ere, adina eta euskararen erabilera bultzatzeari buruzko jarrera esaterako, loturik daude erabilerarekin, baina askoz neurri txikiagoan.

Euskalduntze-alfabetatzearen sektorean diharduten eragileen egiteko nagusia, beraz, aipatutako bigarren faktoreari lotzen zaio, hots, hizketarako behar besteko hizkuntza-gaitasuna lortzeko prestakuntza eskaintzeari.

Ikas-prozesua hobetzeko, horren eraginkortasuna eta praktikotasuna bermatzeko alegia, komeni da euskalduntze-alfabetatzearen eta gizarte-erabileraren artean zubiak eraikitzea, ikasleak euskaraz behin ikasi eta gero euskaraz aritzeko dituen aukerak eta oztopoak aurreikusiz. Izan ere, ikasten ari den bitartean ikasleak aurrera egiten badu ere, atzera egin dezake hizkuntza erabiltzeko aukerarik ez badu.

Euskalduntze-alfabetatzeaz gaindiko eremua hartzen badu ere, Euskararen Aholku Batzordeak euskalgintzan diharduten eragile publiko zein pribatu guztiei gomendioa egin nahi die erabilera areagotzeko gero eta produktu nahiz zerbitzu gehiago garatu eta gizarteratu ditzaten.

### *Motibazioa eta sentsibilizazioa landu*

Euskalduntze-alfabetatzean motibazioa indartzeko egitarauen artean bi eratakoak bereiz eta gara daitezke:

- Batetik, erakunde publikoek, euskalduntze-alfabetatzea besarkatuz, sustapen-kanpainak egin ditzakete:
  - euskarara hurbiltzeko eta euskara ikastera erakartzekoak, besteak beste, adin eta behar ezberdinetarako ikasteko aukerak zeintzuk diren adieraziz;
  - euskararen erabilera bultzatzeko, euskararen prestigioa areagotzeari bideraturikoak;
  - euskarak egoera eta esparru guztietarako balio duela erakutsiko dutenak;
  - L2ek, batik bat, euskara familian eta lagunartean erabiltzera bideraturikoak.
  
- Bestetik, euskalduntze-alfabetatzean diharduten eragileek, bakoitzak dituen berezitasunen arabera, sustapen-kanpaina sektorialak egin ditzakete merkatua eurenganatzeko eta bakoitzak merkatu-segmentu horretan duen tokia areagotzeko:
  - teknologia berrien erabilera ezagutarazi;
  - tutoretza-sistemak eskaini;
  - behar berezietarako eskaintza zabaldu;
  - ordutegi-malgutasuna eskaini;
  - aholkularitza-zerbitzuak hedatu...